

FUNTSEZKO BALIABIDEAK

Funtsezko baliabideak erabiliz, balorezko proposamena garatu, bezeroengana iritsi, bezeroekiko harremana mantendu eta, azkenik, diru sarrerak lortzen ditu enpresak. Funtsezko baliabideak 4 kategoriatan banatzen dira:

- **Giza-baliabideak:** JakiGo enpresako langileak, gu lauok.
- **Finantza-baliabideak:** garraioarekin edo ematen dugun zerbitzuarekin lortutako dirua bizikletak erosteko eta langileen soldatak ordaintzeko erabiliko da. Honez gain, enpresak ez ditu kostu gehiago izango.

Gure kasuan, enpresa txiki bat garenez, enpresa lau pertsonen artean eramango dugu aurrera, denok ezagutzen baitugu elkar eta gutako bakoitzak gaitasun eta ezaugarri ezberdinak dituelako, lauon fusioari esker proiektu berritzaile hau aurrera eraman eta egin beharreko aurreikuspenak arrakastaz burutzeko.

Dena den, enpresaren kanpo hazkundea emanez gero eta eskaintzak sekulako gorakada izanez gero, beste hainbat langile kontratatzea ere kontuan hartuko genuke edota enpresa handiagoekin sinergia moduko bat egitea. Hala ere, gu lauon elkarrekintzarekin oraingoz nahikoa dela uste dugu, eta etorkizunari bira asko eman ordez, nahiago dugu orainaldian zentratu eta enpresa pixkanaka-pixkanaka ezagutzera eraman. Hain zuzen, ezin dugu oraindik ez ditugun arazo eta oztopoetan pentsatu, egunean egunekoa burutzearekin nahiko.

